

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2011ko apirilaren 14a. VIII. urtea. 2.210. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Juan Oses Idazlea

«Isidoro Gaztañaga munduko txapelduna izateko modukoa zen»

‘Ibarrako mailua’ bezala egin zen ezagun boxeolaria; 1906. urtean jaio zen, eta ospe pixka bat hartutakoan Ameriketako Estatu Batuetara joan zen

Iruñeako Juan Oses idazleak ibartarraren ibilbidea eta pasarteak biltzen dituen liburua idatzi du; bihar izango da aurkezpena 19:00etan kultur etxean **07**



A. IMAZ

→ **Iritsi dira euskalakariak.** Atzo goizean pasa zen Korrika Tolosaldeetik. Euskalakariak Adunatik barrena sartu ziren, eta Zizurkil, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Altzo, Alegia eta Ikaztegieta zeharkatu zituzten. Korrika Txikia ere egin zuten Lizartzan, Tolosan, Anoetan, Iruan, Abaltzisketan, Villabonan, Zizurkilen eta Altzon. **04-5**

Anoetako Udalak 258 etxebizitza egiteko baimena jaso du

Babes ofizialeko 28 etxebizitza, tasatutako 72 eta sustapen libreko 158 egiteko aukera dute **03**

Alegiako Ttapa antzerki taldeak ‘Ez txuri, ez beltz’ eskainiko du bihar eta etzi

Emanaldiak 22:00etan izango dira herriko kultur etxean; «izateko modu ezberdinak» ditu hizpide **06**



HITZAK harpidedunentzat **sarrerak** pareia du



LAGUN ARO GBC


Granada

saskibaloia partida

Apirilak 24 • Igandea
12:30etan • Donostiako Ilunben

harpidedunentzat **TXOKOA hitza**

HITZAK harpidedunentzat **sarrera** pareia du



Bertsotan Korrika

Apirilak 16 • Larunbata • 20:00etan
Donostiako Antzoki Zaharrean

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera** pareia du



Udaberri Dantza Taldearen
Erromeriaren baitan

Afari txartela

Apirilak 16 • Larunbata
21:00etan • Tolosako Zerkausian

Larunbatean, dantzak beteko ditu kaleak. Udaberri dantza taldeak VI. Dantzari Txiki Eguna antolatu du, eta urteroko moduan, erromeriarekin borobilduko dute eguna.

Oinak astintzeko garaia da

Itzea Urkizu

Udaberri dantza taldea 1957. urtean sortu zen, eta orain lau urte, 50. urteurrena ospatu zuten taldekideek. Urtemuga hura girotzeko, hiru urte lehenago hasi ziren erromeria antolatzen, Tolosan euskal dantza eta musika zabaltzeko asmoz. Hasiera batean, taldekideak eta lagun gutxi batzuk soilik hurbildu ziren trikitixa doinuekin afaldu eta oinak astintzera, baina azken urteotan 120 lagun inguruk parte hartu izan dute Abastos eraikin zaharretik Zerkausira lekualdatu den erromerian.

Udaberrik, ordea, ez zukeen mende erdiko ibilbide luzea egin-go, haur eta gaztetxoen harrobirik gabe. 2006. urtean, horrela, lehen aldiz ospatu zuten Tolosako

Taldearen 50. urteurrenaren aitzakira antolatzen hasi ziren Erromeria

Aurten seigarrenez ospatuko dute Euskal Herriko dantzari txikiak biltzen dituen eguna

Dantzari Txiki Eguna. Lehen urtean, Udaberriko ikasleez gain, Hendaia, Iruñea eta Galdakaoko dantzariak ere parte hartu zuten. Udaberriren nahia, ordea, Euskal

Herri osoko dantza, jantzi eta doinuak plaza berean biltzea zen.

2007. urtetik aurrera, Euskal Herriko txoko bakoitzetik talde bat etorri izan da Tolosako dantzari txikien topaketa honetara: Andra Mari (Galdakao), Hortzadar (Iruñea), Guria (Hendaia), Eguzkilore (Gasteiz), Adurtza (Gasteiz), Berritzasuna (Portugalete), Aurrera (Leitza), Otsagiko dantzari gazteak, Agoitzeko dantzari gazteak, Haurtzaro (Oiarzun) edo Hernaldeko dantzari txikiak, besteak beste.

Euskal folkloreaken osagaiez beteriko eguna goizean goiz hasten da, dantzari txikien kalejirarekin. Hamaiketakoaren ondoren, dantza laburrak egiten dituzte bai Alde Zaharrean, eta baita San Frantzisko pasealekuko inguruetan ere. Eguerdian, Plaza Berrian bildu, eta antolatzaileek, Tolosaldeko hainbat elkartetan banatzen dituzte haur eta gazte-txoak. Tripa ondo betetzeaz gain, herri desberdinetako dantzari txikiak elkar ezagutzeko aukera izaten dute.

Arratsaldean, gaztetxoenen festari amaiera emateko, dantza talde bakoitzaren herri edo bailarako pausorik bereizgarrienak ezagutzeko aukera izaten da Plaza Berrian; emanaldi nagusia izaten da 17:00ak inguruan.

Iluntzean, helduen festa

Garai batean erlijiozko ohitura zen erromeria; ermita edo baselizen inguruan ospatzen zituzten



Herrialde bakoitzak bere ezaugarriak izaten ditu bai dantzetan, baita arropetan ere. HITZA



Erromerian festa eta algara izaten da nagusi. HITZA



Gaztetxoek kalejiran ibiltzen dira goizetik eguerdira bitarte. HITZA

jaiak ziren, normalean trikitixa edo eskusoinu baten laguntzaz. Hain zuzen ere, elizak berak eta elizgizonek tabutzat zituzten gizon eta emakumeen arteko harremanak sortzeko aukera izaten zen erromerietan, fandango eta arin-arinen pausoen babesean.

Gaur egun, halako debeku edo bekatuen zamarik gabe ospatzen dituzte trikitixa eta pandero doinuz lagundutako festak, eta hauxe da Udaberri dantza taldeak larunbaterako prestatu duena. Gure arbasoen ohituretatik abiatuz, gaur egungo haur, gazte nahiz helduak dantza egitera gonbidatu nahi izan dituzte Udaberriko antolatzaileek, azken zazpi urteotan.

Triki-poteoa triki-txaranga-poteo bilakatu da erromerian, eta Alde Zahhareko larunbat iluntzeta berezko giroari, musikaz eta dantzaz lagunduko diote. Zerkausian afaldu ondoren, trikitixa doinuak izango dira nagusi, eta festak goizaldera arte iraungo du. Larunbatean, egun osoz, euskal dantza protagonista izango da Tolosan.

● tolosa@hitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gaur egungo herrigunea, hiri antolaketa arauak onartuta garatzen den heinean, ikastola, kiroldegia eta auditoriuma dauden inguruarekin lotuko da. E. MAIZ

Foru Aldundiak 258 etxebizitza berri egiteko baimena eman dio udalari

Etxebizitzak babes ofizialekoak, tasatuak eta librekoak izango dira, 58.542 metro karratuko azalera banatuta

Eneritz Maiz Anoeta

Anoetako Udalak, hiri antolaketako arauen aldagaketa bat egiteko eskaera egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundian. Aldaketa honek, A14 eta A20 guneak, eta S1 eta R1 eremuak eragiten die. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluko bileran, pasa den hilaren 14an, Anoetako hiri antolaketako arauen aldagaketa onartu zuten.

Anoetako Udalak eskatutako aldagaketa helburua, Lasarbe A.14 eta Ikastola A20 alorrak sortzea izan da.

Lasarbe alorrak 58.542 metro karratu dauka, eta eremu horretan, 258 etxebizitza egiteko aukera izango da. Etxebizitza guzti horietatik, 158 sustapen librekoak izango lirateke. 28 etxebizitza, ba-



Gaur egungo etxebizitzetara jarraipena emango diete. E. MAIZ

bes ofizialeko erregimenean egingo lirateke, eta tasatutako 72 udal etxebizitza eraikiko lirateke.

Ikastola A.20 guneak berri, 19.019 metro karratuko azalera du. Bertan, egungo eskola ekipamendua handitzeko aukera izango dute. Aldiz, Txulo baserria finakatu egingo da, eta baita Urritze-

ta baserria bota ondoren, atxikitako 6 etxebizitza egiteko proposamena ere.

Ingurumena zainduz

Foru erabakiak eskatzen du Lasarbe A.14 alorrean egingo den zarataren azterlanak, indarrean dauden araudiak ezartzen dituen

↓ Hiri antolaketa

258 ETXEBIZITZA

- 28. Babes ofizialeko erregimena izango duten etxebizitza kopurua.
- 72. Tasatutako udal etxebizitza kopurua.
- 158. Sustapen librekoak izango diren etxebizitza kopurua.

AZALERAK

- 58.542. Metro karratu izango ditu, Lasarbe alorrak.
- 19.019. Metro karratu izango ditu, Ikastolako areak.

gehieneko balioak betetzea. Era berean, eremuarentzat neurri babeseleak eta barne antolaketarako neurriak proposatu beharko ditu, eremuko zarata kalitatea hobetze aldera.

Halaber, ingurumen eragineko neurrien barruan aurreikusiko da Lasarbe erreka bertakotzea eta haren funtzionalitate ekologikoa berreskuratzea, bertako espeziekin ibai bazterreko landaredia zerrenda bat ezarrita.

Anoeta herriak, arau aldagaketa hauekin, hurrengo zortzi edo hamar urtetarako hazkunde erabakia du. Honela, gaur egungo herrigunea, Ikastola, kiroldegia eta Mikelasagasti auditoriumarekin lotuko dituzte.

Metaposta doako zerbitzuan sartzeko aukera Kzgunean

Interes pertsonaleko dokumentuak biltegitzeko balio du; trebakuntza ikastaroak ere eskainiko dituzte

E. Maiz Anoeta

Otsalean jarri zuten abian Metaposta doako zerbitzua. Interes pertsonaleko dokumentuak biltegitzeko ahal izateko, eta legezko froga balioa duen Interneteko kutxa gotorra da, eta posta elektronikoren auzara du. Etxeko artxibategiaren ordezko gisa sortu dute, etxeetako paperak, dokumentuak eta fakturak ordenatzeko.

Bertan sartzeko, nahikoa da NAN-a edo AIZ-a aurkeztea eta horretara aukera dago Kzgunean. Gaur, bihar edo hilaren 26tik 29ra egongo da aukera, 16:00etatik 20:00etara. Bertan langile prestatuak egongo dira laguntzeko. Era berean, trebakuntza ikastaroak ere eskainiko dituzte.

Metapostaren asmoa, «Interneteko postaren kutxa-gotor elektronikoa» garatzea da. Bertan interes pertsonaleko dokumentuak edo herritarrek eta enpresek balio handia ematen dieten dokumentuak gordetzeko aukera izango da. Gainera, mundu elektronikoan, bere gain hartzen du postontzi tradizional baten zereginak. Sistema horren bidez, postontzi fisikoan jasotzen dituzten dokumentu ugari jaso ditzakete herritarrek: fakturak, banku laburpenak, egiaztagirak, kontratuak, jakinarazpenak, polizak, zitazioak, nominak,...

Ezaugarri nagusiak

Borondatezko eta hautazko erabilera du, erabiltzaile bakoitzak aukera dezake zein igorleren dokumentazioak jasoko dituen. Ez da e-mail kontu bat, beraz, ez ditu izango posta elektronikoa tradizionalaren eraginez sortutako arazoak. Interneterako konexioa duen edozein gailutatik sar daiteke. Erabiltzaileak jasotako komunikazioak biltegitzeko espazioa mugagabea da, baita haren iraupena ere. Bizi guztirako zerbitzua, erraz erabiltzekoa eta doakoa da erabiltzailearentzat.

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ Auxe Garbitasunak.

Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesadunek inongo konpromisorik gabe dei dezatela telefono zenbakira: 638 94 46 04 (Gurutze).

LANA

■ **Igeltseritza orokorra.** Esperiencia handiko igeltsero profesionalak dira: teilatu berriak, teilatu zaharrak konpondu, ba-

rriko obrak egin, pintura lanak,.... eskaintza bereziak egiten dituzte. Interesatuak deitu: 656 41 02 80 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Neska eskualdun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 05:00etatik 09:00ak bitarte, Alegian. Interesatuak deitu, 686 38 18 94 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Mastin txakurkumea.** Bi hila-

beteko mastin arrazako txakurkumea galdu zen ostiralean, hilaren 8an. Abaltzisketa, Amezketeta, Alegia, Beasain, Zumarragako bidean. Aurkitzen duenak deitu mesedez: 637 47 48 10 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Pisua edo baserria.** Pisua edo baserri bila dabil bikote bat Leitzaan, alokairuan hartzeko. Interesatuak, deitu: 661 829 359 telefono zenbakira.

Beti nahi
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Iruran eguna argitu aurretik pasa zen Korrika. Irudian, Mariñi Ugaldes alkatea. A. SAZ

Pausoak sendotzeko deia


Tolosaldea atzean utzi duen Korrika 17 Donostian amaituko da igandean, jai giroan eta euskararen aldeko aldarrikien

Itzea Urkizu/Asier Irujo
 Euskal Herri euskaldun bat lortzeko pauso sendoak ematea beharrezkoa da. Bide horretan, AZEK-ek 18 urtean behin antolatzen duen Korrikak zer pentsatua omen du.
 Korrika 17 atzo iritsi zen Tolosaldera, Adunatik barrena, eta eguzkia irten aurretik Zizurkil, Villabona, Irura, Añeta, Tolosa, Ibañeta, Alzo eta Alegia jeharkatu ondoren, Ikaztegiatik urrunduz zen Goleirra. Goizeko hotzari


jende ugari egin zion aurre, kalera irten eta korrika eginez, giroa sentimendu beroz epelduz. Alderdi dagokionez, euskararen aldekoak izan ziren. Alegian Giar-dia Zizurkil euskalaren oinuen ere entzun behar izan zituzten; hasek ere euskararen aldekoak.
 Zer pentsatua omen du Korrikak belaraldi desberdina, oraina eta etorkizuna, euskararen inguruan bilduta. Belaraldiak urratsak beldin beldira, gaitza bakarra gelditzen da, sendotzea.



Ederrean, Adunako igotsera. Eskuinean, berri, haur saharera euskararen alde korrika. A. SAZ



Heidu eta gazteen eskuetatik pasa zen lekukoa. A. SAZ



Villabonako udal ordezkariak Remi Aiestaran eta Josune Arretxe zinegotzi ohiak goiguan izan zituzten. A. SAZ



Korrika Txikia



Tolosaiko udal ordezkariak. A. SAZ



HITZA!o Ainaza Apiztekoa harpidetuak eman zuten egunkariko kilometroko lekukoa. A. SAZ



Ikaztegietan, herriko txikiak gozoz astindu zituzten oinak. Altzon Iñaki Murua alkateak lekukoa eman zion Klaudia Bach herriko eskolako ordezkariari. A. SAZ-HITZA



GAZTETXOENEN PAUSOAK

Eskualdeko hainbat herrian, haur eta gazteboiek ere euskararen aldeko urratsak eman nahi izan dituzte. Villabonan, Tolosan, Altzon eta Lizartzan hamaika haurrek ospatu zuten euskararen aldeko lasterketa. Abaltzisketan, Iruran eta Añetan ere atzo ospatu zuten txikien Korrika. Astosun, berri, gaur itengo dira korrika egitera. Azkenik, bihar, Amezketako eta Berastegiako haur eta gazteek parte hartuko dute korrika txikietan. A. CAJIGA LUNGUZA SARRICA/LA GAZTETXOENEN PAUSOAK

Irudia > Bidegoian



‘IRAGANA ETA ORAINA’ BIDEOAREN EMANALDI «ZORAGARRIA»

Iragana eta oraina bideoaren emanaldia «zoragarria» izan zela azaldu dute Saiaz Mankomunitateko gizarte zerbitzuetatik. Albiztur, Bidegoian, Beizama eta Errezil-

go adinekoen egunerokotasuna azaltzen da bertan. Emanaldian «adineko denek parte hartu zuten eta beraien burua bertan ikusteak poza eman zien», azaldu

dute, eta gaineratu: «Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik etorritako politikari eta teknikariek ere eskertu zuten bideoa». HITZA

Emozio aniztasuna taula gainean

Ttapa antzerki taldeak ‘Ez txuri, ez beltz’ obra antzeztuko du, bihar eta etzi, herriko kultur etxean

Imanol Garcia Alegia

Alegiako Ttapa antzerki taldeak bere hirugarren antzezlana estreinatuko du, bihar eta etzi, herriko kultur etxean. *Ez txuri, ez beltz* izena du obrak eta emanaldiak bi egunetan 22:00etan izango dira. Izaskun Lopetegí zuzendariak azaldu duenez, «emozioetan, izateko modu ezberdinetan» oinarritua dago antzezlana.

Hain justu, obraren izenburua emozioen aniztasunetik dator, Lopetegik dioenez: «Abanikoa oso zabala da, inor ez baita zuria edo beltza. Objektuak izan daitezke zuri edo beltz, sailkatu daitezke. Baina pertsonen emozio eta izaera ezberdinak dituzte eta ezin ditzaizkegu multzoetan sartu objektuak balira bezala».

Antzezlanean agertzen diren izaerekin ikuslegoa identifikatuko dela dio zuzendariak: «Denok ditugu izaera edo emozio horien tantak. Batzuk gehiago, besteek gutxiago. Baina ezin dugu ukatu denetik pixka bat dugula. Ez daude, baina, bi pertsona berdina, ez da inor zuri edo beltz, tarteko kolore bat baizik».

Lau antzezle ariko dira kultur etxeko taulan: Larraitz Irazusta, Inma Etxeberria eta Maitane Agirre alegiarrek, eta Garikoitz Iturbe billabonatarra. Alegiarrek taldearen beste bi antzezlanetan ere parte hartu zuten. Obra egiten lagundu duten beste ia guztiak ere alegiarrek dira.



Ez txuri, ez beltz antzezlanean parte hartuko duten lau antzezleak entsegu batean; ezkerretik eta goitik hasita: Larraitz Irazusta, Inma Etxeberria, Garikoitz Iturbe eta Maitane Agirre. HITZA

‘EZ TXURI, EZ BELTZ’

- **Zuzendaria.** Izaskun Lopetegí.
- **Antzezleak.** Maitane Agirre, Larraitz Irazusta, Garikoitz Iturbe eta Inma Etxeberria.
- **Eszenografia.** Amaia Beloki.
- **Soinua.** Ibon Azpilikueta.
- **Ile apaintzea.** Amaia Zabala.
- **Hitz-emailea.** Arantxa Beain.
- **Kartela.** Mari Carmen Salido.
- **Argiztapena.** Dar-Dar produktzioak.
- **Laguntzailea.** Alegiako Udala.
- **Emanaldiak.** 22:00etan, bihar, apirilak 15, eta etzi, apirilak 16.
- **Salneurria.** 3 euro.

Rafael Mendizabalek idatzitako bakarrizketetan oinarrituta osatu dute Ttapaok antzezlana. «Bakarrizketak landu ditugu eta gero nahasketa bat egin dugu, bakarrizketak tartekatuz», azaldu du zuzendariak. Antzezleeta-ko bat bakarrizketa egiten ari denean, batzuetan beste antzezleek ere parte hartzen dute, istorioaren pertsonaien modura. «Lan handia egin dute antzezleek eta gogoia dute jendaurrean erakusteko», dio.

Urtebeteko lana

Orain hamar bat urte sortu zen taldea Iñaki Begiristaini egindako omenaldiaren haritik; hark euskaratutako obra bat taularatzeko proiektu gisa sortu zuten. Bigarren proiektu bat ere egin zuten, *Gizonak* izenekoa. Hirugarren antzezlana 2009ko bukaeran egindako antzerki tailer batetik ateratu zen. Hamar bat lagunek eman zuten izena, eta gero jendaurrean aritzeko lau lagunek erakutsi zuten asmoa. Urtebete inguru aritu dira obra prestatzen.

Juan Osés ◊ Idazlea

Isidoro Gaztañaga, 'Ibarrako mailua', ez da oso ezaguna gure artean, baina bere garaian maila handiko boxeolaria izan zen. Juan Osés idazleak bere historia bildu du liburu batean.

«Isidoro Gaztañaga, munduko boxeolaririk onenetakoen artean zegoen»

Maier Ugartemendia Ibarra

Juan Osés idazleak *Isidoro Gaztañaga, inoiz existitu ez zen boxeolaria (Isidoro Gaztañaga, el boxeador que nunca existió)* liburu idatzi du. Aurkezpena bihar izango da 19:00etan, Ibarrako Benito Iza girre Kultur Etxean. Gainera, Ibarrrako Udalak boxeolaria ezagutzera emateko helburuarekin 200 ale erosiko ditu.

Isidoro Gaztañaga 1906an jaio zen Ibarrran, eta 1944an Argentinan jeltokor zegoen senar batek tiroz hil zuen. Liburuan Gaztañagaren bizitza pertsonalaren, nahiz profesioaren berri ematen du. Bere garaian ospe handia izan zuen boxeolaria da, baina Osésen iritziz bere bizitza pertsonaleko gorabeherengatik ez du behin ere merezitako aitortpena jaso. Gaur arte behintzat.

Zein zen Isidoro Gaztañaga?

Gizon hau 1906. urtean jaio zen, Ibarrako baserri batean. Paulino Uzkudun, boxeolari ezaguna, jaio zen lekutik 15 kilometrotara. Uzkudun inguru horretan ezaguna izatera iritsi zen, eta bera erreferentziatzen zuen Gaztañagak. Horregatik, bere pausak jarraitu zituen. Gaztetatik Parisera joan zen boxeoan ikastera. Eta gero, ibilbide garrantzitsu bat izan



Isidoro Gaztañaga. HITZA

zuen. Gorabehera handikoa izan zen, baina Uzkudun baina hobea goa zen, dudarik gabe.

Nola hasi zen boxeoan?

Uzkudunek bere inguruan eta Euskal Herri guztian eragin garrantzitsua izan zuen. Gero, Gaztañaga gaztea zela Argentinara joan zen boxeatzera. Han hasi zen borroka, eta ospe pixka bat hartu-

takoan Ameriketako Estatu Batuetara joan zen. Oso pertsonaia garrantzitsua bilakatu zen, munduko txapeldunen bati ere irabazi baitzuen. Jende garrantzitsuen aurka borrokatu zuen. Baina, oso gorabeheratsua zen: edan egiten zuen, erre egiten zuen, emakumeekin ibiltzen zen eta abar. Pertsonaia bitxia zen. Uzkudun, aldiz, falangista zen, gaztgabea. Guztiz kontrakoak ziren. Gerraren aurretik enpresari batek euren artean borrokatzea nahi zuen; Gaztañaga bandera errepublikarraren koloreko galtzekin, errepublikarraren izenean, eta Uzkudun galtza gorri horiekin, falangista zelako. Azkenean, borroka hau ez zen gauzatu, Uzkudunek ez baitzuen Gaztañagaren aurka borrokatu nahi. Uzkudunek ez zuen nahi izan, ziurrenik Gaztañagak irabaziko baitzuen.

Nolako ibilbidea izan zuen Ibarrrako mailuak?

Gaztañagak pisu erdi astuneko munduko txapeldun batzuei irabazi zien. Bera lehenik pisu erdi astunen artean ibiltzen zen, eta gerorago pisu astunetara pasa zen. Ameriketako Estatu Batuetan munduko onenetakoen artean zegoen, eta Ameriketako Estatu Batuak munduko boxeatzailearik onenen sorlekua zen. Baina



Isidoro Gaztañagak ez du inoiz behar bezalako aitortpenik jaso. HITZA

gero zenbait arazo izan zituen, eta gainera, ez zuen zaletasunik. Ez zen entrenatzen. Zenbaitetan borroka baten aurretik emakume batekin aurkitzen zuten, garagar-do bat hartzen. Arrazoi hauengatik ez zen munduko txapelduna izan, bestela dudarik gabe munduko txapelduna izango zen. Primo Carnera txapeldunaren aurka borrokatu zuen, beste batzuen artean. Eta Jose Louisen aurka borrokatzekotan egon zen, baina azkenean mafiak borroka hori burutzea eragotzi zuen. Oso gorabeheratsua zen. Batean onenari 30 segundutan irabazten zion, eta horregatik, onenek ez zuten bere aurka borrokatu nahi izaten. Baina agian hurrengoan erdi purdiko boxeolari baten aurka galdu egiten zuen, aurreko gauean parrandan ibiltzeagatik.

Beraz, urrutira iritsi zen, baina urrutio ere iritsi zitekeen, ezta?

Bai, nahi izanez gero munduko txapeldun izan zitekeen. Gainera, kritikari guztiek onartzen zuten. *Ibarrako mailua* zaïnduko balitz eta zaletasun gehiago izan balu guztia irabaziko luke. Hala ere, prestigio handia zuen, eta onenek ez zuten bere aurka jokatu nahi.

Nolakoa zen benetan, Paulino Uzkudunekin zuen harremana?

Gaztañaga Ameriketako Estatu

Batuetara joan zenean, Uzkudunek jada bere ospea zuen; inork ez baitzuen berari irabaztea lortzen. Gaztañagak, berriz, egun ona zuenean eta jotzen zuenean ez zion inork irabazten. Gaztañagak uste zuen Uzkudunek bere ibilbidean eragin txarra izan zuela, eta nolabait arantza hori gordeta zuen. Pixka bat jeltokor zegoen, zeren AEBetan prestigiodun boxeolari bat ondo zegoen, baina bi gehiegi ziren. Uzkudunei ez zitzaion gustatzen inork itzala egitea, eta bera gainbeheran zegoenean Gaztañaga oso ondo balortua zegoen. Eta Uzkudunek ez zuen behar zen apaltasunik izan Gaztañagarekin. 36an Uzkudun Espainiara itzuli zen. Erregimenak omenaldi ugari egin zitkion, eta ikur moduan erabili zuen. Gaztañaga, aldiz, ez zen hona itzuli. Politikoki ere ez zuen helbururik, eta erregimenak ez zion aitorpenik egin.

Nola hil zen Ibarrrako mailua?

Ameriketako Estatu Batuetan jarraitu zuen borrokan, eta 37 urte zituela jeltokor zegoen senar batek tiroz erail zuen, Argentinan. Orduan, Espainian erregimeneko kazetariren batek albistean bat idatzi zuen bere bizitza kritikatu. Baina, Gaztañagak nahi zuen bizitza bizi izan zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neuniko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Alegia



LOREAK ETA MARRAZKIAK NAGUSI

Karmelee Pellejero Hernialden bizi den tolosarraren lanak ikusi daitezke apirila bukaerara arte Alegiako Jubilatuen tabernan. Artistak marrazki bizi-dunen, loreen, paisaien eta bestelako margolanak ikusi daitezke. Marrazkiak olio teknikarekin

egin ditu, eta loreak marrazteko, aldiz, akrilikoa erabili du artistak. Jubilatuen tabernara gerturatzeko denak, lanak ikustearain batera, eskuratu ditzake, margolari tolosarrak salgai ditu eta koardoz guztiak. I. GARCIA

TOLOSALDEKO hitza info
ETA LEITZALDEKO bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:

Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Larribidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•PK:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, berriki, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatuetan batera pasatu direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago kudeaketa, zuzentzea, erretiraketa eta kontu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala ere, gure datuak ezin dira erretiratu. TOLOSALDEKO HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidedun@hitza.info

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Errepublikaren 80. urteurrena ospatzeko lore eskaintza izango da gaur, 20:00etan kanposantuan jarri berri duten monumentuaren aurrean. 21:00etan, aldiz, afaria izango da Fronton jatetxean, aurretik izena eman dutenentzat.
- **Tolosa.** Orixe ikastetxeak batxilerraren eta Heziketa Zikloen berri emateko hitzaldia antolatu du gaurko. Alberto Ariño orientatzaileak ordubeteko saioa eskainiko du 18:30ean Orixe, Gorosabel eraikinean.
- **Tolosa.** Euskadiko Plan Hidrologikoaren inguruko parte-hartze foroa gaur, 19:00etan kultur etxean.
- **Ugarte.** Petritegi sagardotegira irteera antolatu dute Ugarteko elkartetik, hilaren 16rako. Autobusa 12:30ean aterako da plazatik. Joan nahi duenak txartela Ugarteko Goikoetxea-enean erosi behar du, eta lehenbait lehen egitea aholkatzen dute antolatzaileek.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlariei buruzko argazkiak Aranburu jauregian apirilaren 23a bitarte. Orduetgia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak ez ezik.
- **Tolosa.** Naroa Armendarizena *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a arte. Orduetgia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak ez ezik.

IRURAKO FRONTOIAN PILOTA JAIALDIA

APIRILAK 15 OSTIRALA 19:15ean

LAU TERDIKO PARTIDA BENGOTXEA VII vs CHAFEE

ESKUZ BINAKAKO PARTIDA

CAPELLAN LASA III vs KOKA EULATE

SARRERA DOHAINIK

Antolatzailea: **IRURAKO UDALA**

GAZTA DASTAKETA: MUSU-TRUK
garfepelota.com

PELOTAMANO